



AMEZKETAKO UDALA

FERNANDO AMEZKETARRA

FERNANDO BIZI IZANDAKO ETXEAK

Aita Martin Jose Bengoetxea Adunan jaiotakoa zela badakigu. Ama, Josefa Antonia Altuna, amezketarra, *Torrea* esaten zitzaion etxean jaiotakoa.

Gaske biak garaiak etorri baino lehen lardaskan ibili eta, haurdun geratu zen Josefa Antonia. Adunan ezkontzea erabaki zuten Martin Josek eta Josefa Antoniak, eta baita elkarri baiezkua eman ere 1764ko abuztuaren 13an hango elizan. Handik bi hilabete eskasera jaio zen Fernando Amezketan. Non jaio ote zen? *Espilla-saletxen* beti uste izan den bezala? Besteren batean?

Hipotesi arrazoizkoenak *Torrea* esaten diogun etxearen aldeko apustua egiteko eskatzen dute. Han bizi ziren Josefa Antoniaren gurasoak eta gainerako senideak. Semea izateko orduan bere gurasoen babes bila etorriko zela esan daiteke.

Jakin badakigu Fernando Amezketan ezkondu zela 1790eko apirilaren 25ean. 26 urte zeuzkan eta Maria Josefa Sagastumek, bere emazteak, 18. Fernando eta Maria Josefak ere ez zuten bederatzi hilabeteri begiratu beharrik izan lehenengo semea mundura ekartzeko. Bai, ezkondu eta handik zazpi hilabete ingurura entzun zuten Martin Joxe txikiaren lehen nigarra, abenduaren 4an. Seguru asko *Intxausti* esaten zaion etxean jarri ziren bizitzen.

Fernandok eta Maria Josefak bederatzi seme eta alaba bakarra izan zituzten; lehendabizikoa Fernandok 26 urte bete berritan, eta azkena, 50 betetzera zihoala. Horiez gainera, garai hartan ohitura zen bezala, beste bi gehiago ere etxeratu zituzten, sasikotegi edo inklusatik jasotakoak. Bai, "sasikoa" deitzen zitzaien jasotako hurrei. Guk dakigularik, Fernandok eta Maria Josefak jaio berritan galdu zituzten bi seme.

1793an, Konbentzioko Gerratea deitzen zaiona zela eta Amezketatik Irungo mugaldera joateko prest egon behar zutenen artean zegoen gure Fernando. Ez dugu uste joan zenik. Dena den, *Intxausti* etxean bizi zen orduan. Agirietan dator xehetasun hori.

Intxausti horretatik oso gertu dago *Azentzine haundi* deituraz ezagutzen den etxea. 1817an eta 1819an ere etxe horretan bizi izan zen Fernando bere familiarekin. Seguruenera azken arnasa ere etxe honetan